

SAGARDOGINTZA LEZON


Denon gogoan dago sagardoak Euskal Herrian, eta gehienbat Gipuzkoan eta Nafarroan eduki dituen pisu eta indarra, eta nahiz eta edari honen eta sagardotegien kondairaz datu zehatzik ez izan, argi eta garbi ikusten dugu gure iraganean eduki duen aparteko garrantzia. Gipuzkoa barruan, Astigarraga eta Lezoko sagardoek oso ospe handia eduki zuten, eta gaur egun Astigarraga sagardotegiez beterik dago berriro ere. Lezo berriz, guztiz pobreturik aurkitzen da arlo honetan. Ezer gutxi bait dago, aipatzekotan duela denbora gutxi Altamirako inguruetan zabaldutako Sagarzulo izeneko sagardotegia, bera bait da bakarra gure Lezo honetan. Eta gainera tolarerik ez duenez ez du bertako produziarik.

Kontatzen denez, Lezo garai batean sagarrondoak beterik zegoen, Jaizkibelgo magaleak gehienbat. Itsasoaren hurbiltasuna eta kokapen geografikoa ezin hobea ziren Lezoko sagardoaren kalitatea xiurtatzen zuten bi faktoreak. Gure sagarren artean badago gainera mota bat LEZO izena daramana, hauxe bait zen Ijurkoko aldetik Gaintxurizketako kaxkoraino gehien ematen zen sagarra. Adibide xume honek adierazten digu zein nolako garrantzia eduki zuen garai bateko lezoar sagardoak. Zoritarrez, sagarrondoak legortzen joan ziren, eta berriak landatu ez zirenez gero, bukatu ziren betirako Lezoko sagasti ospetsuak. Askoren ustez, giro kutsadura izan da kausarik garrantzitsuena, baina egia esateko, gure sagastiak legortu ziren garaian, oraindik ez zeuden eraikita gaur egun gure artean ditugun lantegi kutsakorrak. Beraz beste nonbait bilatu beharko genuke hondamendi honen arrazoiak argitzeko.

Jakin badakigu, garai hartan sagardogintzak ez zuela etekin haundirik ematen, eta ondorioz gure baserritarrek sagarrondoak lantzeari utzi zioten, arlo honen heriotza arinduz. Gainera oso kontuan hartu behar dugu, duela 75 bat urte azaldutako sagarrondoetako gaitz mixteriotsua, lau urtetan zuhaitz guztiak legortzen zituena. Hauxe izango da xiur aski, gure sagastien desagerpenari gehitu behar diogun bigarren faktorea. Gaur egun

gaitz honek jarraitzen du gure sagarrondoak legortzen, eta gure zuhaitzen bizitza lau urteetara murrizten.

Modu orokor batez esan daiteke, Euskal Herrian ditugun sagardoari buruzko daturik zaharrenak XI. mendekoak direla, Nafarroako Antso Haundia erregeak sinatutako agiri batetan azaldutakoak hain



zuzen. Baina gure Lezori dagokionez, testurik zaharrenak XV. mendekoak dira, orduan azaltzen bait dira gure sagastiei buruzko lehenengo albistek. 1837an Joxe Iñazio, Joxe Luix eta Manuel Maria Isasa anaiek beren aita zenaren testamenduaren bitartez, Martizkoeneko sagastia jasotzen dute. 1831an, Manuel Iñazio Sarasolak Olauringo sagastia ematen dio bere laguna den Martin Aranbururi, aurretik egindako zenbait tratu bete nahiean.

Bi hauek ez dira kasu bakarrak, Lezoko historia holakoez josirik egon bait da. Esate baterako, mende luzeetan herriko semeek beren noblezia agertarazteko beren ondasunak azaltzen zituzten, eta beraien artean askotan, gure herrian zituzten sagasti ugariak. Oso gutxi dira esku artean ditugun datuak baina jakin badakigu, 1860. urte arte, Lezon ematen zen sagardo produzioa seirehun bat kargakoa zela. Eta karga bakoitzak sei zaku sagar zituen.

1913. urtean, Lezoko sagardo produzioak bere punturik gorena lortu zuen 1.800 kargekin. Handik aurrera sagardo gutxiagora joan zen, eta gaur egun ez du ia inolako garrantzirik. Sagarrondoei dedikatu zaien lur eremuaren aldetik baditugu ere zenbait zehazkizun. 1869an 20 Ha sagastietan erabiltzen ziren bitartean, 1926an 45 Ha erabiltzen ziren, eta 1980an ez ziren berriz, 4 edo 5 Hektareetara iristen. Aldaketa ederra!

Bukatzeke aipa dezagun, joan den mendean sagardotegiak oso ugariak eta famatuak zirela gure Lezo hontan, bai kaxko zaharrekoak eta bai baserriak, Amuntane, Juantene eta Errekaldekoak oso ospetsuak izan zirelarik. Mende honetan, duela 30 bat urte itxi ziren azkenak, Txerrimuño, Bordatxo,... Gaur egun zenbait baserriaren tolarea gorde dutenez, sagardoa egiten dute oraindik, baina oso kantidad txikitik, eta produzio osoa baserriaren kontsumitu egiten da. Hauetako batzuk: Patxillabordan Martxiel Garmendiaren aldean, Bordatxon, Amuntanen,... Ikusten duzuen bezala, gauza haundirik ez. Aipatzekoa da berritoki ere, Altamira aldean zabalduko Sagartzulo izeneko sagardotegia, Lezoko bailaran bakarra dena, baina zoritxarrez berezko tolarerik ez duena. Sagardoak Lezon berea egin du.

KARLOX BARRENTSORO

ERABILITAKO ITURRIAK:

Lezoko Udal Artxibategia

KARLOS ETXEZURIETA SARASOLA.- *"Lezo Herriaren ikuspegi sozio-ekonomiko-historikoa"* (1984)

JOANES ETXEBERRIko zenbait ikasle.- *"La Universidad de Lezo"* (1985)

